

TOPAGUNEA

2000.eko otsailaren 15ean

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan

Topagunean bilduta dauden Bizkaiko euskara suspertzeko elkarteen bilerearen aurkezpena egiten da Euskaltzaindiaren egoitzan.

Mahaipuruan esertzen dira: Fernando Muniozguren, Topaguneko ardura-duna, *Euskarabila* elkarteko Ainhoa Labeaga andrea, Gotzon Lobera, Bizkaiko Diputazioko Kultura Saileko Euskara zuzendaria; Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea eta Xabier Amuritzza.

Fernando Muniozguren jaunak eta Labeaga andreak hitz egiten dute lehendabizi, Topagunearen asmoak agertuz. Ondoren, Xabier Amuritzak bizkaierari buruzko atxikimendua ona dela adieraziz, bere arriskuak ere azpimarratzen, ditu, hots, herrietako txokokerien oihanetan, bizkaieraren batasuna galtzea. Gotzon Loberak, bere aldetik, Bizkaiko Foru Diputazioaren jarrera azaltzen du, besteak beste, bizkaierari buruz, elkarte desberdinek egiten dituzten ahaleginetan laguntzeko prest dagoela.

Azkenik, J.L. Lizundia mintzatzen da, adieraziz bera mahai honetan anfitrioi gisa dagoela, alegia, etxe hau euskararekiko topagunea dela, gure guztion hizkuntzaren Akademiaren etxe nagusia baita. Gainera beste bi euskaltzain urgazle ere badirela, hots, Xabier Amuritzza, aspaldidanik euskaltzain urgazlea eta *Eusker*a agerkarian, lan bikainak aurkeztua, orobat, Iberdueroren laguntzaz argitaratu zen *Oinarrizko Euskar*an. Bestea, Gotzon Lobera, Jagon Saileko Sustapen batzorde idazkaria eta une honetan, Bizkaiko Foru Administrazioan, euskararen arta duena. Fernando Muniozguren ere aipatzen du, Eibarko Toponimia lan, euskararekiko eta bestetan, Akademiarekin harreman ugari izandakoa.

1976an, Zaldibarko Udaletxean, orduko euskaltzainburu zen Luis Villasantek Euskara Batua, euskalki literarioak eta herri hizkeran deritzan txosten oparoan, aipatzen zuen nola euskalki literarioak, Bizkaikoak barne, zaindu behar zirela, txokokerietan erortzeke. Azkenik, zenbait elkarte aipatzen ditu, bera bazkide den *Barbaro*, *Eraz* aldizkariaren kolaboratzaile delarik, *Berbots*, *Berhaizu*, *Barriketan*, *Bizarra Lepoan* eta abar, une honetan, hemen bertan ordezkatuta daudenak gehienak, hain zuzen.